# ASPARRENAKO EUZKO BATZOKIAREN ETA
*(1932ko abenduaren 30a)*
# EMAKUME ABERTZALE BATZAREN (EAB)
*(1933ko urriaren 9a)*
# ERAKETA

# CONSTITUCIÓN DE EUZKO BATZOKIA Y
*(30 de diciembre de 1932)*
# DE EMAKUME ABERTZALE BATZA (EAB)
*(9 de octubre de 1933)*
# DE ASPARRENA



# Asparrena'ko Euzko Batzokia

## Aurkezpena

Asparrena eta EAJ-PNVko kide garen andre eta gizonok pozik gaude. Izan ere, Asparrenan sortu ziren bi erakunde jeltzaleren eraketaren 80. urteurrena ospatzeko aukera ezin hobea daukagu: Euzko Batzokia (1932ko azaroaren 30a) eta Emakume Abertzale Batza (1933ko urriaren 9a).

Lehen testigantzak, gutxi badira ere, lehenagokoak dira. Goian aipaturiko erakunde jeltzaleen eraketarekin etorri zen euskal abertzaletasunaren zabalkundea gure herrian. Gaur eta hemen, Asparrena abertzalea da. Horretan zerikusi zuzena dute Bigarren Errepublika aldarrikatu eta berehala EAJ-PNVko andre eta gizonek emandako hitza eta egindako aparteko lana. Euren eskutik zabaldu zen abertzaletasunaren hazia Arabako alde honetan; hazia sustraitu egin zen eta, frankismoaren zorigaiztoari aurre eginaz, egokiro ernamuindu zen. Horri guztiari laguntza eman diote abertzalez osatutako gizatalde ausartaren ondorengoek zein euskal aberrigintzara etorritakoek.

## Presentación

Asparrena y los hombres y mujeres que militamos en EAJ-PNV estamos de enhorabuena, ya que tenemos el honor de recordar en el 80 aniversario de su constitución a dos entidades nacionalistas en Asparrena: Euzko Batzokia (30 de diciembre de 1932) y Emakume Abertzale Batza (9 de octubre de 1933).

Los primeros testimonios, aunque escasos, son anteriores. Es a partir de la constitución de dichas entidades cuando el nacionalismo vasco comenzó a afianzarse en nuestra localidad. A día de hoy, Asparrena es nacionalista gracias al compromiso adquirido y al esfuerzo realizado por un nutrido grupo de hombres y mujeres de EAJ-PNV al poco tiempo de proclamarse la Segunda República. Ellas y ellos aventaron la semilla nacionalista en el noreste alavés; la semilla prendió y, pese a la adversidad franquista, germinó adecuadamente. A ello han contribuido los y las descendientes de aquél valiente grupo patriota así como otras personas llegadas a la causa nacional vasca.



Urteurrenak pozez gainezka jarri gaitu. Hori dela eta, bestelako jardunei kalterik egin gabe, Araba Buru Batzarrak eta Asparrenako Uri Buru Batzarrak zera nahi izan dugu: aipaturiko bi erakunde jeltzaleen eraketari buruz ezagutzen ditugun agiri dokumental eta grafikoak orriotara ekartzea. Ziur gaude, aurrerantzean, gaia sakonduko duen pertsona bat baino gehiago etorriko dela.

Aurkezpen-hitz hauei bukaera eman aurretik argitalpena prestatzen lagundu diguten erakunde eta norbanakoei eskerrak eman nahi dizkiegu: Arabako Artxibo Historiko Probintziala, Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia, Sabino Arana Fundazioa, José Claudio Ruiz de Gauna, Miren Cacho Santamaría, Miren Nekane Castresana Ruiz de Gauna, Jon Alkorta, José Ángel Alkorta, Alfredo Sáez de Arregi, Iñaki Cacho, Raquel López de Arregi eta Roman Berriozabal.

Asparrenan, 2013ko urrian.

La conmemoración nos llena de gozo. Es por ello que, sin menoscabo de otras actividades, el Araba Buru Batzar y la Junta Municipal de EAJ-PNV en Asparrena hemos querido trasladar a estas páginas cuanta información documental y gráfica se conoce relacionada con la constitución de dichas entidades nacionalistas. Confiamos en que, con posterioridad, haya personas interesadas en profundizar en el tema.

Antes de finalizar esta presentación, deseamos agradecer a cuantas entidades y personas han contribuido de muy diferentes maneras a la redacción y posterior edición de esta publicación: Archivo Histórico Provincial de Álava, Archivo del Territorio Histórico de Álava, Fundación Sabino Arana, José Claudio Ruiz de Gauna, Miren Cacho Santamaría, Miren Nekane Castresana Ruiz de Gauna, Jon Alkorta, José Ángel Alkorta, Alfredo Sáez de Arregi, Iñaki Cacho, Raquel López de Arregi y Román Berriozabal.

Asparrena, octubre de 2013.

*Xabier Agirre López*

*Araba Buru Batzarraren presidentea / Presidente del Araba Buru Batzar*

*Rubén Barrena Fernández de Romarategi*

*Asparrenako Uri Buru Batzarraren presidentea / Presidente de la Junta Municipal de Asparrena.*



# Asparrenako Euzko Batzokia[1]

Euskal abertzaletasunak Asparrenan egin duen bide historikoaz hitz egiteko derrigor aipatu behar da herriko batzokia, Aspar(r)enako Euzko Batzokia hartu zuena. Batzokia ezinbestekoa izan da EAJ-PNVren eta jeltzaleen ideologiaren garapenerako. Batzokian, alderdiko kide eta jarraitzaileak prestatu eta hezteko ekimenak antolatu eta bideratzeaz gain, EA-PNVren inguruan jaiotako hainbat ekimenek ere (kulturazkoek, hezkuntzakoek, aisialdikoek...) lekua izan zuten.

Asparrenako Batzokiak, 1887ko Elkarteen Legearen arabera sortu eta eratu zenak, kultura- eta aisialdi-izaera izan zuen. Nolanahi ere, gainontzeko batzokien kasuan bezalaxe, hasieratik bertatik izan zen EAJ-PNVren egoitza. Izan ere, Alderdiarekin bat eginik, guztiz onartu zuen "Jaungoikoa eta Lagi-zarra" (JEL) lema.

Bazkideak alderdi jeltzaleko kideak edota jarraitzaileak ziren. Izan ere, araudian jasotako oinarri ideologikoak bereganatzen zituzten. Beraz, ez da harritzekoa Asparrenako Batzokian hainbat batzorde egotea: batzokikoa, EAJ-PNVrena eta Emakume Abertzale Batzarena (EAB).

Abordar la historia del nacionalismo vasco en Asparrena implica necesariamente hablar del primer batzoki o centro vasco de la localidad. A saber, el denominado Aspar(r)enako Euzko Batzokia. Éste ha resultado de vital importancia para el desarrollo de EAJ-PNV y la ideología jeltzale. En el batzoki se articuló y vehiculizó todo lo relativo a la formación de la afiliación así como de las personas que simpatizaban. Se dio cabida y acomodo a cuantas iniciativas de diferente índole (cultural, educativo, recreativo,...) nacieron en torno a EAJ-PNV.

Aun cuando su creación y constitución, regulada por la Ley de Asociaciones de 1887, tenía un marcado carácter cultural y recreativo, el Batzoki de Asparrena, al igual que la mayoría de los batzokis, fue desde un primer momento sede de EAJ-PNV, ya que, de conformidad con dicho partido, aceptó en su integridad el lema "Jaungoikoa eta Lagi-zarra" (JEL).

Sus socios eran afiliados y/o simpatizantes del partido jeltzale, dado que se adherían a los principios ideológicos recogidos en su reglamento. En consecuencia, no es de extrañar que en el batzoki de Asparrena convivieran varias juntas: la correspondiente al batzoki propiamente dicho, la junta correspondiente a EAJ-PNV y la junta de Emakume Abertzale Batza (EAB).

*(1)*

Batzokiari dagozkion datuak Arabako Artxibo Historiko Probintzialean jasotakoak dira: sub-1573-15, fol. 1-14. Era berean, honako liburu hau kontsultatu da: GIL BASTERRA, Iñaki, *Jurisdicción especial y represión franquista en Álava (1936-1942)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2006.

*Los datos relativos al Batzoki proceden del Archivo Histórico Provincial de Álava, sub-1573-15, fol. 1-14.* Asimismo se ha consultado GIL BASTERRA, Iñaki, *Jurisdicción especial y represión franquista en Álava (1936-1942)*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2006.




Asparrenako Euzko Batzokia, Araiako Iturbero auzoan 56 zenbakia zeraman etxeko lehen solairuan kokatua. Goiko solairuan Celedonio Azurmedi eta bere familia bizi ziren.

Batzoki de Asparrena, situado en la planta primera de la casa número 56 del barrio Iturbero de Araia. El piso superior estaba habitado por Celedonio Azurmendi y su familia.

*Asparrenako Euzko Batzokia (c. 1933)*

Arabako hainbat herritan gertatzen ari zen bezalaxe, Asparrenako jeltzale-talde jori batek lehenbailehen batzoki bat irekitzea hobetsi zuen. Hori lortze aldera, batzokia legeztatu eta abian jarri ahal izateko egin beharreko lanez arduratuko zen batzordea izendatu zuten.

Lan-batzorde hori honako pertsona hauek osatu zuten: Quirico Cacho; Benito González de Langarika; Francisco Martiarena; Manuel Sáez de Arregi eta Joaquín Urrestarazu.

Batzordeak 1932ko abenduaren 19an amaitu zituen bere lanak. Egun horretan, elkarte berriaren araudia onartu zuen. Elkarte sortu berriari honako izen hau eman zioten: Aspar(r)ena´ko Euzko Batzokia / Centro Vasco de Asparrena.

Al igual que venía ocurriendo en otras localidades de Araba, un nutrido grupo de jeltzales de Asparrena creyó oportuno proceder a la apertura de un batzoki a la mayor brevedad posible. A tal efecto, constituyeron una comisión encargada de las labores previas tendentes a la legalización y puesta en marcha de dicha sociedad.

Formaron dicha comisión: Quirico Cacho; Benito González de Langarika; Francisco Martiarena; Manuel Sáez de Arregi y Joaquín Urrestarazu.

La comisión culminó su labor el 19 de diciembre de 1932 con la aprobación del reglamento que había de regir la marcha de la nueva sociedad, a la que denominaron Aspar(r)ena´ko Euzko Batzokia / Centro Vasco de Asparrena.

Besteak beste, hiru bazkide-mota aurreikusi zituen araudiak: a) "lehen mailakoak", EAJ-PNVren alderdikideek osatua; b) "bigarren mailakoak", alderdiari zuzen-zuzenean lotu gabe egonik, alderdizaleak ziren pertsonez osatua; c) "hirugarren mailakakoak", babesa ematen zuten pertsonez osatua.

JEL siglaren baitan jasotako izpirituaren zabalkundeaz gain, Asparrenako Batzokiak beste honako hau ere hartu zuen helburu: bere bazkideen eta asparrendar guztien kultura-ezagutzak handitzea. Hori lortze aldera, liburutegi on bat eratu eta izaera hezigarriko hitzaldiak antolatzea hobetsi zuten.

Araudia egun batzuk beranduago, abenduaren 22an hain zuzen, aurkeztu zuten Gobernu Zibilean. Tramitazio-lanak ABBko burukide zen Ignacio Unzeta jaunak egin zituen.

Beharrezkoa zen gobernu-baimena eskuratu eta berehala, 1932ko abenduaren 30ean Batzokiaren eraketa ofizialari ekin zioten. Egun horretan, Asparrenako 27 lagunek bilera egin zuten, aldez aurretik alokatu zuten etxean, Araiako Iturbero auzoan 56 zenbakia duen etxeko lehen solairuan.

Entre otros aspectos, dicho reglamento contemplaba tres tipos de socios: a) "de primera", formado por los afiliados a EAJ-PNV; b) los "de segunda", formado por aquellos que, no estando afiliados al partido, simpatizaban con el espíritu de la entidad jeltzale; y c) los "de tercera", formado por personas protectoras.

Sin menoscabo de la difusión del espíritu contenido en las siglas JEL, el batzoki se propuso incrementar la cultura de sus asociados y de todo el vecindario de Asparrena, procurando la formación de una buena biblioteca y la organización de conferencias de carácter instructivo.

El reglamento fue presentado al Gobierno Civil días más tarde, el 22 de diciembre. Su presentación corrió a cargo del burukide del ABB, Ignacio Unzeta.

Una vez contaron con la correspondiente aprobación gubernativa, con fecha 30 de diciembre de 1932, se procedió a la constitución oficial del batzoki. Ese día, 27 personas de la localidad se reunieron, tras alquilarlo, en el primer piso de la casa número 56 del barrio Iturbero de Araia.

*Ansola, Jerónimo. Arostegi, José María*[2]*. Audikana, Pedro. Azkona, Bonifacio. Barrutia, Suceso*[3]*. Berasategi, Jorge. Cacho, Quirico*[4]*.*

*(2)*

José María Arostegi Ezeolaza. Araian jaio eta bizi izandakoa. Jornalaria. Blasen eta Encarnación-en semea. 1940an, 28 urte zituela, hainbat zigor jarri zizkion Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava delakoak. Besteak beste, 500 pezetako isuna. Gasteizko Karmeldarren komentuan jarritako kartzelan egon zen.

*José María Arostegi Ezeolaza. Natural y vecino de Araia. Jornalero. Hijo de Blas y de Encarnación. En 1940, a la edad de 28 años, fue condenado, entre otras cuestiones, al pago de 500 pesetas por el Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava. Estuvo preso en la cárcel habilitada en los PP. Carmelitas de Vitoria-Gasteiz.*

*(3)*

Suceso Barrutia González de Langarika. Araian jaio eta bizi izandakoa. Jornalaria. Asparrenako zinegotzia EAJ-PNVren izenean (1933ko apirilaren 23ko udal hauteskundeetan aukeratua). 1941ean, 49 urte eta adinez txikiak ziren bi seme zituelarik, Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava delakoak 800 pezetako isuna jarri zion.

Suceso Barrutia González de Langarika. Natural y vecino de Araia. Jornalero. Concejal de EAJ-PNV en Asparrena (elegido en las elecciones municipales celebradas el 23 de abril de 1933). En 1941, a la edad de 49 años y siendo padre de dos hijos menores de edad, fue condenado, entre otras cuestiones, al pago de 800 pesetas por el Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava.

*(4)*

Quirico Cacho Santamaría. Amalia Intxaurragarekin ezkondua. Asparrenako zinegotzia EAJ-PNVren izenean (1933ko apirilaren 23ko udal hauteskundeetan aukeratua). Quirico Araba Batailoiko kide izan zen. Bere aita Elías gerra garaian atxilotu zuten eta Gasteizko kartzelan sartu.

*Quirico Cacho Santamaría. Casado con Amalia Intxaurraga. Concejal de EAJ-PNV en Asparrena (elegido en las elecciones municipales celebradas el 23 de abril de 1933). Quirico formó parte del Batallón Araba. Su padre Elías fue detenido y posteriormente encarcelado en Vitoria-Gasteiz.*

*García de Albéniz, Lucio*[5]*. Giné, Daniel. Gómez, Ignacio. González de Langarika, Benito. Gurrutxaga, Aniceto. Langarika, Nicolás. Larrinzar, José. Lezea, Félix. Lezea, José. Madinabeitia, Victor*[6]*. Martiarena, Enrique. Martiarena, Francisco*[7]*. Osés, Doroteo. Perea, Nazario. Romero, José. Ruiz de Gauna, Sixto*[8]*. Sáez de Arregi, Manuel*[9]*. Urrestarazu, Joaquín. Zabala, Pedro. Zubiaurre, Félix.*

Elkartea sortu bezain laster, bildutako guztiek, aho batez, zuzendaritza-taldea aukeratu zuten. Honatx aukeratutakoak:

Tras constituir la sociedad, los reunidos eligieron por unanimidad la junta directiva. Ésta quedó formada por las siguientes personas:

*Cacho, Quirico (presidentea / presidente)*
*Barrutia, Suceso (presidenteorde / vicepresidente)*
*García de Albéniz, Lucio (idazkari / secretario)*
*Martiarena, Francisco (liburuzain / bibliotecario)*
*Gurrutxaga, Aniceto (diruzain / tesorero)*

Egoerak agintzen zuen berehalakotasunari jarraiki, alokatutako etxea atondu zuten eta, aldi berean, kanpoaldea apaindu. Etxaurrean, aldenik aldeko errotulua jarri zuten batzokiaren izenarekin, "Aspar(r)ena´ko

Con la inmediatez requerida, acondicionaron las dependencias del piso y decoraron convenientemente su exterior: un amplio rótulo con la leyenda "Aspar(r)ena´ko Euzko Batzokia" que se extendía de un extremo

*(5)*

Lucio García de Albéniz Martínez de Albéniz. Araian jaio eta bizi izandakoa. Ajuria S.A. enpresako langilea. 1939an, 27 urte zituela, hainbat zigor jarri zizkion Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava delakoak. Besteak beste, 4.000 pezetako isuna. Gasteizko Karmeldarren komentuan jarritako kartzelan egon zen preso.

*Lucio García de Albéniz Martínez de Albéniz. Natural y vecino de Araia. Empleado en la empresa Ajuria S.A. En 1939, a la edad de 27 años, fue condenado, entre otras cuestiones, al pago de 4.000 pesetas por el Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava. Estuvo preso en la cárcel habilitada en los PP. Carmelitas de Vitoria-Gasteiz.*

*(6)*

Víctor Madinabeitia González de Langarika. Araian jaio eta Donemiliagan bizi izandakoa. Kontularia. 1941ean, 55 urte zituela, hainbat zigor jarri zizkion Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava delakoak. Besteak beste, 3.000 pezetako isuna.

*Víctor Madinabeitia González de Langarika. Natural de Araia y vecino de San Millán. Contable. En 1941, a la edad de 55 años, fue condenado, entre otras cuestiones, al pago de 3.000 pesetas por el Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava.*

*(7)*

Francisco Martiarena Martínez. Araian jaiotakoa. 1937an Bilboko Larrinagako kartzelan egon zen.

*Francisco Martiarena Martínez. Natural de Araia. En 1937 se hallaba detenido en la cárcel de Larrinaga en Bilbao.*

*(8)*

Sixto Ruiz de Gauna López de Lacalle. Araian jaio eta bizi izandakoa. Ajuria, S.A. enpresako tailer-burua. 1883an jaio zen y 1936ko irailaren 7an hil, errekete-talde batek fusilatuta.

*Sixto Ruiz de Gauna López de Lacalle. Natural y vecino de Araia. Jefe de talleres de la empresa Ajuria, S.A. Nació en 1883 y fue fusilado el 7 de septiembre de 1936 por un pelotón de requetés.*

*(9)*

Manuel Sáez de Arregi. Araian jaioa.

*Manuel Sáez de Arregi. Natural de Araia.*



Asparrenako EABko bi emakume (ezkerretik eskuinera, Gregoria "Goyita" García de Albéniz eta María "Mariatxo" Alkorta) familia behartsuen artean banatzeko asmoz prestatu dituzten gabonsariak erakusten. Aretoaren atzealdean dekoratu bat ageri da, seguruenik ere antzerki-emanaldiren batean erabilitakoa. Era berean, irudiaren eskuineko aldean, arropak ageri dira, janariekin batera gabonsari gisa erabiltzeko. *José Ángel Alkortak utzitako argazkia.*

Dos representantes de EAB de Asparrena (de izquierda a derecha: Gregoria "Goyita" García de Albéniz y María "Mariatxo" Alkorta) muestran los aguinaldos que, con ocasión de la Navidad, han preparado para su distribución entre las familias más necesitadas. Al fondo del salón se puede ver una decoración correspondiente, con toda probabilidad, a alguna representación teatral. Asimismo, a la derecha de la imagen se aprecia ropa, posiblemente destinada, al igual que los aguinaldos, a su distribución. *Fotografía cedida por José Ángel Alkorta.*

*Gabonsarien banaketa (c. 1934)*
*Reparto de aguinaldos de Navidad (c. 1934)*

Euzko Batzokia"; era berean, bi ikurrinen formen diseinuari jarraituz egindako egurrezko baranda jarri zuten balkoian.

Batzokia San Pedro egunaren bueltan ireki zen (1933ko ekainaren 29an). Egun batzuk geroxeago, uztailaren 4an hain zuzen, zera zioen *Euzkadi* egunkariaren berriemaile asparrendarrak, *Gixon* izenekoak: "Al fin podemos reunirnos en nuestro centro, estando acondicionado el ambigú y el salón bar, habiéndose visto concurridísimo durante las fiestas". Aldi berean, herriko gazte batek Ametzagako erromeriatik etxerako bidean jasotako erasoaren berri eman zuen *Gixon*ek. Gaztea, Batzokiko ezpata-dantzarien banderadun zena, esandako tokian egon berria zen dantzariekin batera.

al otro de la fachada así como una barandilla de madera diseñada en base a dos ikurriñas.

El batzoki abrió sus puertas en torno a la festividad de San Pedro (29 de junio de 1933). Con fecha 4 de julio de ese año, *Gixon*, corresponsal local del diario *Euzkadi*, manifestaba lo siguiente: "Al fin podemos reunirnos en nuestro centro, estando acondicionado el ambigú y el salón bar, habiéndose visto concurridísimo durante las fiestas". Asimismo, el corresponsal daba cuenta de la agresión que sufrió un joven al regresar de la romería de Ametzaga, donde había participado, en calidad de abanderado, junto con el grupo de ezpatandantzaris del batzoki.

Gorago aipatu den bezala, 1933an bazen dantzari-talde bat Batzokian. Urte bete beranduago, 1934an, bi ziren taldeak. Asparrenako Batzokiko bi talde horiek Gasteizko Mendizorrotza futbol-zelaian Aberri Egunaren ospakizun-ekitaldietan parte hartu zuten. Aberri Egun hori historiako hirugarrena izan zen.

Más arriba se ha dado cuenta de la existencia de un grupo de dantzaris en el seno del batzoki en 1933. Un año más tarde, en 1934, dos grupos de dantzaris de Asparrena tomaron parte en el acto celebrado en el estadio de fútbol de Mendizorrotza de Gasteiz, con ocasión de la celebración del tercer Aberri Eguna.

*A taldea / Grupo A*

*Alustiza, Ramón. Aroztegi, Emilio. Auzmendi, Antonio.*
*García de Albéniz, Celestino. Goñi, Francisco. Romero, José. Ruiz de Gauna, Antonio.*
*Sáez de Arregi, Isidoro. Lezea, Félix (arduraduna / responsable).*

*B taldea / Grupo B*

*Arrizabalaga, J. Baena, Jesús. Gabiña, Donato.*
*Goñi, Germán. Goñi, Ricardo. Perea, Jesús[10].*
*Urbina, Plácido. Urrutia, Pedro. Osés, Doroteo (arduraduna / responsable).*

1934ko abenduaren 23an berriztatu ondoren, honako pertsona hauek osatu zuen zuzendaritza-batzordea:

Tras su renovación el 23 de diciembre de 1934, la junta directiva quedó compuesta por las siguientes personas:

*Intxaurraga, Castor[11] (idazkaria / secretario)*
*Larrinzar, José Luis (diruzaina / tesorero)*
*Martiarena, Enrique (presidentea / presidente)*
*Martiarena, Félix (liburuzaina / bibliotecario)*
*Sáez de Arregi, Manuel (presidenteordea / vicepresidente)*

Urte bete beranduago, 1935ko abenduaren 15ean, zuzendaritza-batzordea berriztatzeari ekin zitzaion:

Un año más tarde, con fecha 15 de diciembre de 1935, la junta fue renovada:

*Alkorta, José María (idazkaria / secretario)*
*Giné, Benito (liburuzaina / bibliotecario)*
*Larrinzar, José Luis (diruzaina / tesorero)*
*Martiarena, Enrique (presidentea / presidente)*
*Sáez de Arrregi, Manuel (presidenteordea / vicepresidente)*

*(10)*
Jesús Perea Okaranza. Araian jaioa. 1937an, Bilboko Eskolapioen ikastetxean jarritako kartzelan preso zegoen.
*Jesús Perea Okaranza. Natural de Araia. En 1937 se hallaba detenido en la cárcel de los PP. Escolapios, en Bilbao.*

*(11)*
Castor Intxaurraga Elorza. Isidoro Intxaurragaren eta Teresa Elorzaren semea.
*Castor Intxaurraga Elorza. Hijo de Isidoro Intxaurraga y de Teresa Elorza.*




Bertan ageri diren pertsonen identifikazioa José Ángel Alkortak egin du. *Asparrenako Uri Erakundearen argazkia.*

Identificación de las personas a cargo de José Ángel Alkorta. *Fotografía de la Organización Municipal de Asparrena.*

*Gizon-emakume taldea Asparrenako Euzko Batzokiko balkoian (1933ko urriaren 7a)*
*Grupo de personas en el balcón de Asparrenako Euzko Batzokia (7 de octubre de 1933)*




(1) Concha Madinabeitia; (2) José Ángel Alkorta; (3) ¿Gaspar? o ¿Baltasar? Alkorta; (4) José Ángel Gurrutxaga; (5) Natividad Egiluz; (6) Juan José Gorrotxategi; (7) Felisa Fernández; (8) Félix Lezea; (9) José María Alkorta; (10) ¿Gaspar? o ¿Baltasar? Alkorta; (11) Melchor Alkorta; (12) Miguel Alkorta; (13) Celestino García de Albéniz; (14) Enrique Martiarena; (15) Mariatxo Alkorta; (16) Timotea Gorrotxategi; (17) Agustín Ruilope; (18) Gregoria García de Albéniz; (19) Ricardo Goñi; (20) Jorge Sagastume; (21) José Luis Gorrotxategi; (22) Antonio Zubiaurre; (23) Enrique Martiarena; (24) Celedonio Azurmendi; (25) Ramón Alustiza; (26) Félix Zubiaurre; (27) Benito Giné; (28) ¿Mariano? o ¿Ricardo? Arenaza; (29) Aniceto Gurrutxaga; (30) Noé Lezea; (31) Emilio Arostegi; (32) Benito González de Langarika; (33) Julia Albizu.

Zuzendaritza-batzordeak 1934ko irailaren 28an Gobernu Zibilera bidalitako ziurtagiri bati esker zera dakigu: bazkideetatik 13k, gutxienez, 16 eta 23 urte arteko adina zutela. Onartutako araudiaren arabera, Batzokiko kide izateko gutxienez 15 urte behar ziren.

Del análisis de una certificación enviada por su junta directiva al Gobierno Civil (28 de septiembre de 1934), sabemos que, al menos, 13 asociados tenían una edad comprendida entre los 16 y los 23 años. La edad mínima de ingreso en el batzoki era de 15 años, según el reglamento en vigor.

*Martiarena, Francisco (22 urte). Martiarena, Félix (20 urte)[12]. Romero, José (22 urte). García de Albéniz, Lucio (22 urte). Ruiz de Gauna, Antonio (17 urte). Alustiza, Ramón (18 urte). Osés, Doroteo (21 urte). Arostegi, Jesús (22 urte)[13]. Arostegi, Emilio (17 urte). Giné, Benito (18 urte). Sáez de Arregi, Isidoro (19 urte)[14]. Berastegi, Gerardo (17 urte). Madinabeitia, Estanislao (19 urte).*

Ez dakigu zehatz-mehatz zenbat bazkide izan zituen Batzokiak 1936ko uztailean itxi zuten arte. Ez dugu, tamalez, orduko bazkide-liburua aurkitu.

1934ko kontu-balantzearen arabera, bazkide-kuoten zenbatekoa 478,50 pezetakoa izan zen. Bazkide bakoitzak hilean ordaindu beharreko gutxieneko kuota 0,25 pezeta izanik, honako ondorio hau atera daiteke: kasurik onenean Asparrenako Euzko Batzokiak 159 bazkide zituela 1934an.

Goian aipaturiko kopuru hori 1933ko azaroaren 19ko Gorteetarako hauteskundeetan EAJ-PNVk lorturiko botu kopuruarekin[15] konparatuz gero (362 andra eta gizonek botua eman zioten) zera pentsatzera garamatza, Batzokiko bazkideen kopurua nabarmenki

Desconocemos el número exacto de las personas asociadas al batzoki hasta el momento de su clausura en julio de 1936, ya que no hemos dado con el libro de asociados.

Tomando como base el balance de cuentas correspondiente al año 1934, la recaudación de cuotas de afiliados ascendió a 478,50 pesetas. Siendo 0,25 pesetas el importe mínimo mensual a pagar por asociado, cabría colegir, por lo tanto, que en el mejor de los casos el número de asociados a Asparrenako Euzko Batzokia en 1934 ascendió a 159 personas.

La comparación de dicho dato con los votos obtenidos (362 votos femeninos y masculinos) por EAJ-PNV en las elecciones a Cortes del 19 de noviembre de

*(12)*
Félix Martiarena Martínez. Araian jaioa. 1937an, Bilboko Eskolapioen ikastetxean jarritako kartzelan preso zegoen.
*Félix Martiarena Martínez. Natural de Araia. En 1937 se hallaba detenido en la cárcel de los PP. Escolapios, en Bilbao.*

*(13)*
Jesús Arostegi Ezeolaza. Araian jaioa. 1937an Valladolideko kartzelan zegoen.
*Jesús Arostegi Ezeolaza. Natural de Araia. En 1937 se encontraba detenido en la cárcel de Valladolid.*

*(14)*
Isidoro Sáez de Arregi Sagasti. Manuel Sáez de Arregiren semea.
*Isidoro Sáez de Arregi Sagasti. Hijo de Manuel Sáez de Arregi.*

*(15)*
DE PABLO CONTRERAS, Santiago, *La Segunda República en Álava,* EHUren Argitarapen Zerbitzua, Bilbao, 1989.




Bertan ageri diren pertsonen identifikazioa José Ángel Alkortak, Miren Cachok eta José Claudio Ruiz de Gaunak egin dute. *Iñaki Cachok eta Miren Nekane Castresana Ruiz de Gaunak utzitako argazkia.*

Identificación de las personas que aparecen a cargo de José Ángel Alkorta; Miren Cacho y José Claudio Ruiz de Gauna. *Fotografía cedida por Iñaki Cacho y Miren Nekane Castresana Ruiz de Gauna.*

*Giza taldea Asparrenako Euzko Batzokiko balkoian (c. 1933)*
*Grupo de personas en el balcón de Aspar(r)enako Euzko Batzokia (c. 1933)*




*(1) Tomás?, Jesús? o Nazario? Perea; (2) Celestino García de Albéniz; (3) Santiago Intxaurraga; (4) Sixto Ruiz de Gauna López de Lacalle; (5) Castor Intxaurraga; (6) María Luisa Martiarena; (7) Francisco Martiarena; (8) José Larrinzar; (9) Miren Cacho; (10) Quirico Cacho.*

ehundik gorakoa izan zela eta, edozein kasutan ere, goian identifikatutako pertsonen kopurua baino handiagoa zela. Badakigu, adibidez, honako hauek ere Asparrenako Batzokiko bazkide izan zirela:

1933[15], nos lleva a pensar que el número de asociados superaba con creces la centena y que superaba en cualquier caso el número de las personas identificadas más arriba. Así nos consta que también pertenecieron al batzoki de Asparrena:

*(15)*
DE PABLO CONTRERAS, Santiago, *La Segunda República en Álava*, Servicio Editorial de la UPV, Bilbao, 1989.

## *Arostegi Ezeolaza, Marcelino*[16]. *Intxaurraga Astola, Isidoro*[17]. *López de Arregi González, Tomás*[18]. *Perea Okaranza, Tomás*[19] *Urrestarazu Urturi, José*[20]. *Zeberio Gereñu, Celestino*[21]

Batzokiaren baitan izandako antzerki-jardunari buruzko zuzeneko berririk izan ez arren, jakin badakigu bertan zenbait emanaldi izan zela 1935ean zehar. Urte horretako kontabilitatean zera ikus daiteke: izandako 188,25 pezetako diru-sarreraren zati bat, gutxienez, aipaturiko antzerki-emanaldietan jasotakoa dela. Zoritxarrez, ez dakigu emanaldi horiek Batzokiko antzerki-taldeak eginikoak izan ziren edo, aldiz, kanpotik herrira etorritako batenak.

Aun cuando no poseemos datos directamente relacionados con la actividad teatral en el batzoki, sabemos que en el mismo se llevaron a cabo algunas representaciones teatrales a lo largo de 1935. En la contabilidad de ese año figura un ingreso por valor de 188,25 pesetas, de las que, al menos una parte, corresponde a lo recaudado en dichas representaciones. Desconocemos si las representaciones fueron ejecutas por algún grupo del propio batzoki o de algún otro desplazado a la localidad.

*(16)*

Marcelino Arostegi Ezeolaza. Araian jaioa. Gasteizen preso egon zen.

*Marcelino Arostegi Ezeolaza. Natural de Araia. Estuvo preso en Gasteiz.*

*(17)*

Isidoro Intxaurraga Astola. Jornalaria, Otxandion jaioa eta Araian bizi izandakoa. Gasteizko Karmeldarren komentuan eta Murgian preso egon zen. Gerora, Basauriko Bidebietara desterratu zuten. 62 urte zituela, Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava delakoak 100 pezetako isuna jarri zion. Bere alaba Amalia Quirico Cachorekin ezkondu zen.

*Isidoro Intxaurraga Astola, Jornalero, natural de Otxandio y vecino de Araia. Estuvo preso en el convento de los PP. Carmelitas de Vitoria-Gasteiz y en Murgia. Con posterioridad fue desterrado a Dos Caminos, de Basauri. A la edad de 62 años, Isidoro fue condenado al pago de 100 pesetas por el Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava. Amalia, hija de Isidoro, contrajo matrimonio con Quirico Cacho.*

*(18)*

Tomás López de Arregi González. Albeizen jaioa. Nekazaria. Asparrenako zinegotzia: 1933ko apirilaren 23ko udal hauteskundeetan katoliko independiente modura aurkeztu zuen bere burua. 1941ean, 52 urte zituela, hainbat zigor jarri zizkion Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava delakoak. Besteak beste, 1.000 pezetako isuna.

*Tomás López de Arregi González. Natural de Albéniz. Labrador. Casado. Concejal de Asparrena: elegido en las elecciones municipales celebradas el 23 de abril de 1933 como católico independiente. En 1941, a la edad de 52 años, fue condenado, entre otras cuestiones, al pago de 1.000 pesetas por el Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava.*

*(19)*

Tomás Perea Okaranza. Gerra-kontseilua egin zioten Santoñan (1937ko urria). Salaketa: Araian armak eskuratu izana eta Eusko Gudarosteko kide izatea. 1940an, 29 urte zituela, Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava delakoak 5.000 pezetako isuna jarri zion.

*Tomás Perea Okaranza. Fue sometido a un consejo de guerra en Santoña (octubre de 1937) acusado de haberse apoderado de armas en Araia y haber pertenecido a las milicias vascas. En 1940, a la edad de 29 años, fue condenado al pago de 5.000 pesetas por el Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava.*

*(20)*

José Urrestarazu Urturi. Ajuria y Urigoitia enpresako gerentea. 1940an, 71 urte zituela, hainbat zigor jarri zizkion Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava delakoak. Besteak beste, 1.000 pezetako isuna.

José Urrestarazu Urturi. Gerente de la empresa Ajuria y Urigoitia. *En 1940, a la edad de 71 años, fue condenado, entre otras cuestiones, al pago de 1.000 pesetas por el Tribunal de Responsabilidades Políticas para Álava.*

*(21)*

Celestino Zeberio Gereñu. Araian jaioa. Asparrenako zinegotzia EAJ-PNVren izenean (1933ko apirilaren 23ko udal hauteskundeetan aukeratua). Gasteizen preso egon zen.

*Celestino Zeberio Gereñu. Natural de Araia. Concejal de EAJ-PNV en Asparrena (elegido en las elecciones municipales celebradas el 23 de abril de 1933). Estuvo preso en Gasteiz.*




# Emakume Abertzale Batza (EAB)[22]

Beste zenbait herritan bezalaxe, Asparrenako Euzko Batzokiak bere baitan jaso zuen herriko emakume abertzaleek sortu zuten elkartea: Emakume Abertzale Batza (EAB). Sortu bezain laster, emakumeez osatutako elkartea Batzokiaren eskumendean jarri zen.

Modu formalean eratu aurretik, emakumeek batzorde kudeatzaile bat eratu zuten. Batzorde horrek elkartearen araudia landu zuen eta 1933ko irailaren 22an onartu ostean, Gobernu Zibilean aurkeztu zuten onespen eske (irailaren 27a).

Aipaturiko batzordea honako emakume hauek osatu zuten: Ángela Alkorta, Gregoria García de Albéniz, María Jesús Madinabeitia eta Aurelia Otegi.

Gobernuaren baimena jaso bezain laster, urriaren 9an Asparrenako hamaika emakumek Batzokira jo zuten eta, bertan elkar hartu ondoren, herriko Emakume Abertzale Batza (EAB) sortu zuten.

Al igual que en otras localidades, el batzoki de Asparrena acogió en su seno a la agrupación local de Emakume Abertzale Batza (=*Asociación Nacionalista Vasca de Señoras y Señoritas*). Dicha agrupación adoptó el carácter de filial del Batzoki.

Con anterioridad a su constitución formal, una comisión gestora elaboró el reglamento de dicha asociación y, tras probarlo el 22 de septiembre de 1933, lo presentó al Gobierno Civil para su aprobación días más tarde (27 de septiembre).

Dicha comisión estuvo formada por Ángela Alkorta, Gregoria García de Albéniz, María Jesús Madinabeitia y Aurelia Otegi.

Una vez contaron con la autorización gubernativa correspondiente, once mujeres de la localidad se reunieron días más tarde (9 de octubre) en el batzoki y constituyeron la agrupación local de Emakume Abertzale Batza (EAB) de Asparrena.

*Alkorta, Ángela. Alkorta, María. Alustiza, Manuela.*
*García de Albéniz, Concesa. García de Albéniz, Gregoria.*
*García de Albéniz, Lidia. Madinabeitia, María Jesús. Otegi, Aurelia.*
*Pitillas, Felisa. Ruiz de Gauna, Amparo. Urrestarazu, Teresa.*

*(22)*
EABri dagozkion datuak Arabako Artxibo Historiko Probintzialean jasotakoak dira: sub-1573-9, fol. 1-9.
*Los datos relativos a EAB proceden del Archivo Histórico Provincial de Álava, sub-1573-9, fol. 1-9.*

Eratu bezain laster, zuzendaritza-batzordea aukeratu zuten:

En dicha reunión quedó constituida su junta directiva:

*Alkorta, Ángela (presidentea / presidenta)*
*García de Albéniz, Gregoria (diruzaina / tesorera)*
*Madinabeitia, María Jesús (presidenteordea / vicepresidenta)*
*Otegi, Aurelia (idazkaria / secretaria)*

Berriztatu ondoren (1935eko otsailaren 28), honako ema-kume hauek osatu zuten zuzendaritza-batzordea:

Tras su renovación (28 de febrero de 1935), la junta directiva quedó formada por las siguientes ema-kumes:

*García de Albéniz, Gregoria (diruzaina / tesorera)*
*García de Albéniz, Lidia (presidentea / presidenta)*
*González, Victoria (presidenteordea / vicepresidenta)*
*Otegi, Aurelia (idazkaria / secretaria)*

Ez dugu Asparrenako EAB osatu zuten emakumeen zenbateko zehatza ezagutzen. Zuzendaritza-batzordeak Gobernu Zibilera bidalitako ziurtagiri bati esker (1934ko irailaren 28) zera dakigu: emakume horietatik 15ek 16 eta 23 urte arteko adina zutela.

Desconocemos el número exacto de asociadas a EAB. De una certificación enviada por su junta directiva al Gobierno Civil (28 de septiembre de 1934), sabemos que 15 de ellas tenían una edad comprendida entre los 16 y 23 años. A saber:

*Alkorta, María (21 urte). Alustiza, Manuela (21 urte). Arenaza, Cruz (19 urte)*
*Arregi, Cándida (18 urte). Egurrola, Dolores (17 urte). Ezeolaza, María (18 urte)*
*Intxaurraga, María (18 urte). Larrañaga, Lucía (19 urte). López, Isabel (22 urte)*[23]
*López, Juanita (20 urte)*[24]*. Madinabeitia, Aurora (21 urte). Okaranza, Leoncia (21 urte)*
*Perea, Teodora (19 urte). Zabala, Agustina (21 urte). Zufiaur, Modesta (21 urte)*

Onartutako araudiaren arabera, EABren kide izateko gutxienez 15 urte beteak behar zituen hautagaiak.

La edad mínima para ingresar en EAB se estableció 15 años.

*(23)*
Isabel López de Lacalle, Albeizen jaioa.
*Isabel López de Lacalle, natural de Albéniz.*

*(24)*
Juanita López de Lacalle, Albeizen jaioa.
*Juanita López de Lacalle, natural de Albéniz.*




Ezkerretik eskuinera: Concesa García de Álbeniz; Jesusa García; Gregoria ("Goyita") García de Albéniz; María ("Mariatxo") Alkorta; Ángela Alkorta eta Lidia García de Albéniz.
*José Ángel Alkortak utzitako argazkia.*

De izquierda a derecha: Concesa García de Álbeniz, Jesusa García, Gregoria ("Goyita") García de Albéniz, María ("Mariatxo") Alkorta, Ángela Alkorta y Lidia García de Albéniz.
*Fotografía cedida por José Ángel Alkorta.*

*Emakume-taldea Asparrenako Batzokiaren balkoian (c. 1933)*
*Grupo de emakumes en el balcón de Asparrenako Euzko Batzokia (c. 1933)*

1934ko kontu-balantzearen arabera, bazkidekuoten zenbatekoa 290,55 pezetakoa izan zen. Bazkide bakoitzak hilean ordaindu beharreko gutxieneko kuota 0,10 pezeta izanik, honako ondorio hau atera daiteke: kasurik onenenean Asparrenako Emakume Abertzale Batzak 242 bazkide zituela 1934an. Batzokiaren kasuan bezalaxe, ez dirudi hori horrela izan daitekeenik. Hortaz, pentsatzekoa da gehiengo batek araudian begiz jotako gutxienekoa baino gehiago ordaintzen zuela.

Goian aipaturiko kopuru hori 1933ko azaroaren 19ko Gorteetarako hauteskundeetan EAJ-PNVk lorturiko botu kopuruarekin[25] konparatuz gero (362 andra

Tomando como base el balance de cuentas correspondiente al año 1934, la recaudación de cuotas de afiliadas ascendió a 290,55 pesetas. Siendo 0,10 pesetas el importe mínimo mensual a pagar por asociada, cabría colegir que, en el mejor de los casos, el número de asociadas a Emakume Abertzale Batza en 1935 ascendió a 242 mujeres. Al igual que en caso de los socios del batzoki, no parece probable que el número de emakumes fuera tan elevado, por lo que es de suponer que pagaban más de lo estipulado.

La comparación de dicho dato con los votos obtenidos (362 votos femeninos y masculinos) por EAJ-PNV en las elecciones a Cortes del 19 de noviembre de

*(25)*
DE PABLO CONTRERAS, Santiago, *La Segunda República en Álava*, EHUren Argitarapen Zerbitzua, Bilbao, 1989.

eta gizonek botua eman zioten) zera pentsatzera garamatza, EABren kideen kopurua nabarmenki ehundik gorakoa izan zela eta, edozein kasutan ere, goian identifikatutako pertsonen kopurua baino handiagoa zela.

Bere jardunari dagokionez, EABren ohiko jarduna dela esan beharra dago. Hau da: jantzien josketa edo/eta bilketa beharrean zeuden pertsonei emateko; janarien bilketa edo/eta erosketa, jarraian, premia gorrian zeuden familien esku uzteko; jaio berriei zuzendutako arropatxoak…

1933[25], nos lleva a pensar que el número de asociadas superaba con creces la centena y que superaba en cualquier caso el número de las mujeres identificadas más arriba.

Respecto a su actividad, cabe decir que es la típica de EAB: confección y/o recogida de ropas ("Ropero vasco") para su distribución entre personas necesitadas; recogida y/o adquisición de víveres para familias con necesidad; canastillas de ropa para niños y niñas recién nacidos…

*(25)*
DE PABLO CONTRERAS, Santiago, *La Segunda República en Álava*, Servicio Editorial de la UPV, Bilbao, 1989.

EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV)
ARABA BURU BATZARRA (ABB)
LANDABURU ETXEA
POSTA KALEA 4
01001 VITORIA-GASTEIZ

Testugilea · Autor del texto:
Román Berriozabal

Diseinua · Diseño:
Sormen Creativos

Lege-gordailua · Depósito legal:
VI-000/2013




eaj
pnv